Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Nieves Aranburu Otaegi

Usurbil, Gipuzkoa (1936)



Aurkibidea

Biografia



Usurbilen jaio zen kale nagusiko Markesaren etxean, bederatzi senideko familian. Aita udaletxeko funtzionario-lanetan aritzen zen, eta ama soroko lanetan, seme-alaben eta senarraren laguntzarekin. Bi urte eta erdirekin hasi zen eskolan, eta han ibili zen hamalau urte izan zituen arte. Oso gustuko zuen eskolara joatea, eta pena handia hartu zuen utzi egin behar izan zuenean. Michelinen aritu zen lanean urte batzuetan, baina ezkondu eta bi alaba izan zituenean utzi egin zuen lan hura. Gurekin egon zenean, Antonio Orbegozo senarrarekin bizi da Usurbilen.

Zintak

USU-003

- **Proiektua**: Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Data**: 2010-08-02
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Eider

USU-004

- **Proiektua**: Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2010-08-02
- **Iraupena**: 83 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

USU-005

- **Proiektua**: Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2010-08-02
- **Iraupena**: 81 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Etxe bakarrean 13 lagun bizitzeko nola moldatzen ziren

- **Erref**: USU-003/003
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:03:26. **Bukatu**: 00:05:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Amak etxean egiten zuen lan. Etxean 13 lagun bizi ziren. Ohe batean 4 lagunek ere egiten zuten lo. Koltxoiak artoaren azalarekin egindakoak izaten ziren.

2. Hainbat etxetan bizi behar izandakoa

- **Erref**: USU-003/006
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:06:58. **Bukatu**: 00:08:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Epaileak etxetik bidali zituenean, etxe batetik bestera ibili ziren. Senide bakoitza non jaio zen azaltzen du. Alokairuan bizi ziren etxe haietan.

3. Osabak trenbide-pasagunean izandako istripua

- **Erref**: USU-003/008
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:10:05. **Bukatu**: 00:11:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Osabak trenbide-pasagunean istripua izan zuen eta hurrengo egunean hil zen.

4. Eskolara joateko gogoa eta aukera

- **Erref**: USU-003/010
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:13:15. **Bukatu**: 00:16:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Eskolara oso gustura joaten zen, baina ez nahi adina. Eskolan 30-40 lagun izaten ziren. Don Teodoro Bakailaua izan zuten maisu. Entziklopedia erabiltzen zuten ikasteko. Aitak behatzarekin sinatzen zuen.

5. Ezkongabeen haurren bataioak

- **Erref**: USU-003/013
- **Iraupena**: 0:00:19. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:18:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Ezkongabeak umea izaten bazuen, goizean goiz egiten ziren bataioak, inork jakin ez zezan.

6. Zeukaten arropa ondo zaindu behar

- **Erref**: USU-003/016
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:19:24. **Bukatu**: 00:22:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Gosea izaten zen eta janzteko arropa gutxi. Apretak zaintzeko, erantzi egiten zituzten bidean. Orduko eskolako amantalak eta galtza mota batzuk nolakoak izaten ziren azaltzen dute. Galtza luzeak 14 urte ingururekin jantzi zituzten lehenengo aldiz; lehenago galtza motzak eta galtzerdiak janzten zituzten. "Malas abarcas" erabiltzen zituzten.

7. Gaixotasunei lehen nola egiten zitzaien aurre

- **Erref**: USU-003/017
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:22:48. **Bukatu**: 00:26:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Osasun ona izan dute beraiek, baina lehen ume asko hiltzen zen. Gaixotzen zirenean, enplasteroak laguntzen zien. Tifus-izurria izan zen Usurbilen. Antonioren osaba 9. pneumoniarekin hil zen. Lehen pneumonia zenean, urik ez emateko esaten zuten; emanda, ordea, sendatu egiten ziren.

8. Lehen nola garbitzen ziren

- **Erref**: USU-003/019
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:26:31. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
12 urterekin morroi joan zen eta denetik ikasi zuen han. Lehen dutxak ez ziren eta Puntapaxko errekan garbitzen ziren. Etxean ere nola-hala moldatzen ziren garbitzeko. Arropa astean behin aldatzen zuten. Lehen ez zegoen galtzontzillorik; bai, ordea, miseria handia.

9. Gerrako armak eta umeen jolasak

- **Erref**: USU-003/021
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:31:24. **Bukatu**: 00:34:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerrako tiroak eta bonbak gogoan ditu Antoniok. Soinuaren arabera bereizten zuten zer arma motarekin botatakoa zen tiroa. Bonbak nondik botatzen zituzten azaltzen dute. Soldaduek alde egiten zutenean, umeek bolbora biltzen zuten harekin jolasteko.

10. Kaletarren eta kalexartarren arteko lehia sanoak

- **Erref**: USU-003/022
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:34:01. **Bukatu**: 00:35:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
Kaletarren eta kalexartarren artean pike handia zegoen. San Juanetan harrika ibiltzen ziren eta nork su handiagoa egingo lehian aritzen ziren. Hurrengo egunean denak lagun ziren.

Transkripzioa
- (A) Hoik kaletarrak, gu kalexartarrak, kontrariyuak ginttun gu beti.
- (J) Baiño hor’e frentia al zan hor?
- (A) Frentekua ez! Hoi geo huan! Geroko kontuk dittuk hoik! Geroko kontuk!

- (N) Larra-asuntuak eta...
- (A) Larra ostutzen genitxien guk. Kalexartarrairi larrak. San Juanetan suba itten zan, baiño San Juanetan hasarre eoten giñan haik eta gu, hasarre. Geo pasatzen zan e? Ta zeatikan, batetik bestea harrika ta Ramuni begi ondua irikita’re bai harriyakin ta...
- (E) Ai ama...!
- (A) Bai, itten giñun kristonak! Baiño geo hurrungo egunian, geo plazan eoten giñun ikusten aber hor zauden kaletarrak... “Bueno, hemen zek, hor zek”. Jun ta hartu ikuillu-atxurrakin zarta ta Olarrondoko, Olarrondoko belardin barrena [...].
- (N) Ta larrak ostu’re bai e? Kalexartarrak gaiztuak hituan!
- (A) Ale guztik! Demetriontzako ez genixkin larrik uzten!
- (N) Hua izaten zan ba, zea,ika-mika hua e?
- (A) Bai, baiño geo dana ondo.
- (J) Sano askuak e! Sano askuak....
- (E) Zerrengatikan zan hori, baiña?
- (J) Larra...
- (A) Masustak izaten dun zea? Hoi da, hoi da.
- (N) “La hoguera de San Juan”. Ta ordun kaletarrak iten zuen suba, ta kalexarkuak’e iten zuen suba. Eta zenbat eta denbora gehiyo iraun, haik kanpeon. Baiño ezertako ez zan izaten e? Baiño, ika-mika.
- (J) Ez, ba! Norbeak esaten zun guk gehiyo aguantatu diyau.
- (A) Honen aittonak ematen zien zuma ta, Demetriok. Ona huan Demetrio e? Harekin ikasi genin mataderin eta danin, txarri-hiltzen ta danian.
- (J) Ona zan, oso ona zan.
- (A) Ona.
- (J) Oso ona.

11. Luzuriagan lanean bizi guztian

- **Erref**: USU-003/031
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:47:05. **Bukatu**: 00:49:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak

Laburpena:
Soldadutzatik bueltatu zenean, Luzuriagan hasi zen mantentze-lanetan. Gaztetan morroi izan zenean ikasitakoak baliagarriak izan zitzaizkion han. Luzuriagan 37-38 urte aritu zen lanean eta 57 urte zituela hartu zuen erretiroa. Tailerrean 80 bat lagun ziren, eta fabrika osoan 600 inguru. Lan txarra zen hangoa. Inguruko herrietatik joaten ziren langileak hara lanera.

12. Antzerkiak egiten ibilitakoa

- **Erref**: USU-003/040
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 01:00:15. **Bukatu**: 01:01:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Nievesek antzerkiak egiten zituen. Zuzendaria nor izaten zuten aipatzen du. Antzerki onak egiten zituzten.

Transkripzioa
Nieves: -Nik ordun antzerkik iten nixkin.
-Ona huan ikeragarri gaiñea, ona, ona. Oaiñ'e jun bihar zendun.
Nieves: -Antzerkik iten nixkin ta antzerkiya nin behintzet hurrengo igandian edo.
-Mikelek in zin politt askua.
Nieves: Ta handik berehala hasi giñan ateatzen. Antzerki onak itten hittuan hemen.
-Badakik han zinia nun [...] Txamuntun iten zixkiyen.
Nieves: -Garbi Alai. Aurrena Mixerikordin.
-Mixerikordin ta gero han, bai.
Nieves: -Aurrena Mixerikordin, neska-koxkorra nitzala aurrena.
Joxe: -Gioi ona, gaiñeaz.
-Ordun maestra ta, Pilar Galardi ta.
-Enkarni're bai.
-Enkarnina, antzerkiya iten zun. Baiño dirijitzen zuenak zian Maritxu, Lolita ta... Apuntadora behintzat Maritxu.

13. Neska-lagunarekin planak pixkanaka

- **Erref**: USU-003/042
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:01:42. **Bukatu**: 01:02:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Nobio zirela, zer plan egiten zituzten azaltzen dute: bizikletan ibiltzera joaten ziren igandetan. Ostegunetan "el día de las bragas" izaten zen, neska-lagunarekin joateko eguna baitzen.

14. Nobiotako hasierako lotsak

- **Erref**: USU-004/004
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:03:17. **Bukatu**: 00:05:49

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Iritziak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:
Lehen mutilak ordaintzen zuen zinera joatean. Neskek lotsa izaten zuten gose zirela edo komunera joateko beharra zutela esateko. Emakumearen egoerari buruzko iritzia ematen du Nievesek.

Transkripzioa
-Orduan mutillak neskai inbitatu egiten al ziyon holako gauzetako?

-Bai.
-Mutillak ordaintzen zun beti?
-Eta zinea juten baziñan'e pagatu in bihar zan ta, bokadillua're, gosia izaten zan ta, Parte Zarrera jun, Ormazabalera jun eta bokadillua...
Nieves: -Donostira juten giñan.
-Nik bokadillua eman nahi, baiño bokadillua ez zidan hartu, ni bokadillua jaten ta bera gosiak eta beira. Eskatu... ez atrebittu.
Nieves: -Lotsatu iten giñan neskak. Lotsatu.
Joxe: -Nun esan dezu, Ormazabalenian?
-Parte Zarrian, Ormazabal, bai. Oaiñ'e han ziok.
-Nieves: -"Calle 31 de Agosto". Donostira asko juten giñan, zinea.
-Pintxuak jan eta.
Joxe: -Haundi bat al zan hori? Urdiñez pintauta daona, Cepan bestaldian?
-Bai, bai.
-Eta orduan zer egiten zenun, zuk zure bokadillua etxetik eraman ta beak...?
-Ez, nik jan iten nun baiño honek ez zun nahi izaten.
Nieves: -Eske komuneko gogua gendakala esateko're lotsatu itten giñun. Egiya da.
-Ze ba?
Nieves: -Hoixe ba. Gauza rarua iruittuko zaizu. Nei're bai oain.
-Holaxe zan bizimodua. Ordun bizimodua holaxe zan.
Nieves: -Nik oain esaten dit, nik oain... eta nere billobaidi're esaten zet, e? Nik oain... (ondo atea zaitelako ta ezkondu eta ondo bizittu gaittuk, ezta?), baiño nik oain gaztia izan eta mutil bat gustatuko balitzaia, nik ez niñuke mutilla etorri zai, mutillak esan zai eongo. Ez al zaizu normala iruitzen?
-Bai bai.
-Nieves: -Nik oain hoi pentsatzen det, baiño ordun giñan giñan bezelakuak.
-Orduan ezin zan esan gustatu egiten diazu edo holakoikan.
Nieves: -Ezta...
-Izandu zittun bai...
Joxe: -Gaur bai, gaur esango zenduke?
-Nik bai. Nik bai. Nik gure billobaidi hori esaten zet gure neskei, Aloña ta Mariai. Nik oain... Eta zeatik ez gaiñea? Zeatik ez?
Joxe: -Zeiñek esan digu hoi, Ximonak, ezta?
-Bai.
Nieves: -Berak esango lukela?
Joxe: -Bai. Pena hoi zakala esaten zun.
Nieves: -Esango lukela. Ta nik'e bai esango nuke. Zeatik ez det esango? Eske zeatik bihar deu emakumiak gizasemiak baiño gutxiyo? Hala gea gaiñea, esaten duenez, baiño.
-Esango dute batzuk.
Nieves: -Esan bai. Eta zeatik esaten due? Ikusten duelako gehiyo geala. Honbre, no.
-Zuk zer esaten dezu, arrazoi dula?
-Hala izango due. Esaten ai da ta. Hala izango du.

15. Fabrikako lan-baldintzak eta ordu estrak

- **Erref**: USU-004/006
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:06:11. **Bukatu**: 00:08:22

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Fabrikan astean behin kobratzen zuen Antoniok. Zer soldata izaten zuen azaltzen du. Lehen ere aparteko orduak sartzen zituzten. Orduko lan-baldintzak pixkanaka hobetzen joan ziren.

16. Gabonetako menua eta orduko janariak

- **Erref**: USU-004/008
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:08:40. **Bukatu**: 00:10:28

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:
Umetan Gabonak familian ospatzen zituzten. Eguberri egunean zer jaten zuten azaltzen dute. Arrain-saltzaileak zozketa egiten zuen azken arrainekin. Lehen bakailaoa pobreen janaria zen.

17. Arrain freskoa Oriotik eta Getariatik

- **Erref**: USU-004/010
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:10:39. **Bukatu**: 00:12:01

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:
Arrain freskoa ekartzen zuten Usurbila Oriotik eta Getariatik. Arrain-saltzaileek otarrea buru gainean eramaten zuten.

18. Olio-zopa baita Arzaken ere

- **Erref**: USU-004/011
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:12:01. **Bukatu**: 00:15:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Antonioren aitak arrainak harrapatzen zituen ibaian, baina oliorik ez zegoenez, baratzera botatzen zituzten lurra elikatzeko. Lehen arrain-zopa ez zen egiten, olio-zopa baizik. Eztei-bazkaria Arzaken egin zuten; orduko menuan oilo-zopa sartzen zen; 125 pezeta balio zuen bazkari hark pertsona bakoitzeko. Orduan Arzaken ama zegoen sukaldean lanean. 50. urteurrena bete zutenean, Arzakera joan ziren ospatzera.

19. Eztei-bidaia eta Aviaco hegazkina

- **Erref**: USU-004/013
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:17:32. **Bukatu**: 00:19:28

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Eztei-bidaian Bilbora eta Madrila joan ziren. Hegazkina hartu zuten hara joateko. Usurbilen ezkontzen ziren guztiak Madrilgo hotel berera joaten ziren. Hegazkina nolakoa zen azaltzen dute, Aviaco konpainiakoa.

Transkripzioa
-Eta gero ezkontza biajian nora jun ziñaten?
-Madridera.
Nieves: -Bilbora aurrena.
-A, Bilbora; han pasa giñun hiru egun, larunbatetik asteazkenea.
Nieves: -Hiru egun eta geo Madridea jun giñan airoplanuan.
-Hotel Euskalduna. Geo abioi kaskar batian jun giñan Madridea.
-Nola izena zun abioiak? Ze konpaiñia zan?
-Iberia.
Nieves:Hor dauzkat billetiak.
-Hori're bai gordeta?
-Baiño haik soiñuk goi hortan eta haik belarriko miñak!
-A bai, e?
Joxe: Madriden ez al zian zeakuak, Ximonekuak?
-Ximonekuak, Ximoneko bi ahizpak eta aittona Raimundo're bai. Gukin bazkaltzen zian askotan, han egoten huan. Ondo pasa genin.
-Joxe: Gu're hala jun giñun eta.
-A bai, e, zuek'e bai, e?
-Madriden nun izan ziñaten?
Joxe: -Bárcena. Hotela. Horko nausik zian hemen Txokokuak.
-Bai, Ximonekuak. Hil zian.
-Eta harea danak juten zian, Usurbilgo guztik harea?
Joxe: -Bai, Usurbillen ezkontzen zian guztik obligatorio.
-Eta ondo.
-Eta ze in zenuten, Madridera jun abioyian. Nolakua zan abioia orduan?
-Kaxkarra, berrogeita laun berrogeita launekua. Bai, aidian ta bazian, egualdi txarrak eta itten zittun kriston zeak.
Joxe: -Aviaco.
-Aviaco, Aviaco, bai, Aviaco huan, arrazoi dek, Joxe. Aviaco.
-Eta? Nola izaten zan? Hasi zanian hegan ze inpresio egin zizun?
-Inpresiyua, aurreneko aldiya zan, inpresiyua, belarriko miña. Oainguak ez due itten baiña ordun zeoze palta zun abioiak. Kriston belarriko miña danok.
-Belarriko miña zaratangatikan o alturangatikan?
-Miña. Alturaatikan edo izango zan edo. Oain automoillian aldapa goranzkuan itten diu, tak!, ixten die belarrik-eta. Holakon bat izango zan. Oso altu're ez zan jun, baiño...

20. Ezkontzako fakturak

- **Erref**: USU-004/016
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:21:20. **Bukatu**: 00:23:59

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Ezkontzako egunean Arzaken bazkaldu zuten; orduko faktura erakusten du Nievesek. Eztei-bidaiako hegazkin-txartela erakusten dute. Ezkontzako faktura aztertzen dute.

21. Haurdun ez geratzeko neurriak

- **Erref**: USU-004/018
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:24:36. **Bukatu**: 00:27:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:
Umeak mantentzea lan handia zen eta neurriak hartzen saiatzen ziren haurdunaldiak kontrolatzeko. Lehen galarazita zegoen haurdun ez geratzeko neurriak hartzea. "Método Ogino" zegoen orduan, baina ez zen oso eraginkorra. Frantziatik haurdun ez geratzeko supositorioak ekartzen zituztenak ere bazeuden. Basektomia ez zen egiten garai hartan.

Transkripzioa
-Ordun zer nahio izaten zan, ume gutxi euki o ume asko euki?
Nieves: -Guk ez gendun asko nahi.
-Asko mantentzeko jornal batekin...
Nieves: -Eta nere amak esan izandu dit, gu beatzi izandu gea, baiño nere amak esan izandu dit haurdun ote no, ez ote no, negar ein eta aurrea. Harek ez zittun danak nahiko.
-Ez, e?
-Nola ba? Bizitzeko ez zeon ezer'e ta.
-Ordun mixeriya haundiya zan hemen.
-Ordun ez zeon neurriikan? Medikuak ez zun esaten nola...
-Galaziya zeon ordia. Eliza aldetik sekulako...
-Ezin zan ordun, baiña egon bazeuden.
Nieves: -Eon..., ez dakit asko eongo zan'e. Ez dakit, zeatikan esaten zuen "El método Ogino" dalakuoi.
-Zer da hori?
Nieves: -El método Ogino emen da, ba andria...
-Joxe: -Japonesa, ezta? Japonesa ez al zan hoi?
Nieves: -Ez zakit, baiña "el método Ogino, pero de eficaz se ve que no tenía nada. Debía de ser, yo no he usado nunca, e, pero debía de ser..."
-Joxe: "Todas se quedaban preñadas con el método Ogino", bai, bai.
-"No era como un termómetro que la mujer en la vagina tenía que tomarse la temperatura y aquello te decía si tenías, si estabas fértil o no estabas fértil. Pero era una cosa insegurísima".
-Joxe: "Fallaba, fallaba..."
-Ta jendiak ibiltzen al zun hori?
-Bai, bai, guk ez degu ibili behin'e e?
Joxe: -Bai, bai, hala esaten zan: "Zenbat seme dittuzue?" ta "Dittugu hiru normalak eta beste bi Oginonak". Hala esaten zan.
-Laguna ona billatu dezu, e.
Joxe: -"El método Ogino fallaba de todas todas".
-Eta hala ere jendiak sinistu iten zun?
Nieves: -Bueno, zeoze in nahi.
-Termometro hori nun erosten zan?
-Farmazitan izango zan o. Ez, ez zan gaiñea farmazitakua izango. Ordun

Frantzitik supositoiyuak ekartzen zittuenak'e ba emen hittuan.
-Ze supositorio, zertako?
-"Para que no fecundara".
-A bai, e?
-Bai. Nei Joxebak esan izandu zaiak. Frantzin supositoiyiuak.
-Horrek balio zun zeozertako edo?
Nieves: -Zer baliyoko zun? Hortako esaten zun, ez geatzeko izaten omen zala ta.
-Ordun basektomiak eta existitzen zian?
-Nieves: -Keba! Basektomia ordun? Jesus, Maria ta Jose! Ezta... Oain'e ez gizaseme askotan, e.
-Oain gutxiyo e? Aurrenaldi hartan bai e?
-"Son muy machos los hombres".
-Aurrenaldi hartan bastante...
Joxe: -Basektomia iten al zan?
Nieves: -Ordun ez.
-Ordun zeak ingo zin, ordun ba al huan medikuik, ba al huan ordun hirurogeiko urte hoitan?

22. Etxean erditzetik ospitalean erditzera

- **Erref**: USU-004/019
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:27:35. **Bukatu**: 00:29:14

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Nieves haurdun zegoen garai inguruan hasi ziren emakumeak ospitalean edukitzen umeak. Nievesek, hala ere, bi alabak etxean izan zituen. Nievesen koinatak erditze zaila izan zuen, haurlaguna barruan itsatsita baitzegoen; ginekologoak lagunduta salbatu zen.

23. Bi alabak etxean jaiotakoak

- **Erref**: USU-004/020
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:29:14. **Bukatu**: 00:31:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Nievesek bi alabak etxean izan zituen. Lehenengoa medikuarekin izan zituen; bigarrena emaginarekin. Nieves erditzen ari zen bitartean, Antonio non egon zen azaltzen dute.

24. Umea izateko prestaketak eta gorabeherak

- **Erref**: USU-004/021
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:31:35. **Bukatu**: 00:34:21

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Emakumeek haurra izateko, ohea nola prestatzen zuten azaltzen du Nievesek. Garai hartan ez zegoen epiduralik eta minak aguantatu egin behar izaten ziren.

25. Jaioberrien elikadura

- **Erref**: USU-004/023
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:35:36. **Bukatu**: 00:37:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Gabriela emaginak lagundu zion Nievesi erditzean. Jaioberriei bularra, hautsa (Pelargon eta Primacas) eta behi-esnea ematen zitzaien jateko.

Transkripzioa
-Eta moztu beste soka (kordoi unbilikala)?
-Gabrielak. Komadronak. Medikua nun nik, aurrenekuakin medikua nun. Geo bigarrenguakin nun Gabriela. Ta etxian.
-Ta ona gaiñez emakumia e?
-Bai, asko zeatuta, asko zakin bai harek.
-Umia jaiotakuan burua biguiña eukitzen du. Zeoze ematen zitzaion gogortzeko burua edo?
-Ez, ez. Bere gisa jun zitzayon, bere gisa. Harek forma beria ekarriko zun eta hezurren ateeran muittuko ziyon; geo berriz'e berera jun zitzaion guriai.
-Ta ze janari ematen zitzaion orduan umiai?
-Bularra. Nik asko ez nun. Eta geo ba zea, hautsa. Pelargon ordun. Pelargon huan eta gure zaharrena jaio zanian berri-berriya huan Pimacas izena zun, Primacas hautsa. Ta Pelargon. Pelargon zan ordun...
-Joxe: On-ona, oso ona.
-Pelargon, bai. Ta guria, berrik eta, geoztik eongo dittuk makiña bat, guria zanian Primacas. Eta gero behi-esnia. Behi-esnia ez zala ona esaten zien baiño pixkat zeatuta, ur pixkat botata, arinduta pixkat, fuertia izaten zala umientzako... eta ur pixkat. "Había una proporción de agua con leche". Baiño guriai ez zitxon onik iten zaharrenai.
-Joxe: -Hoixe ez ziyon ingo.
-Ez ziyon onik iten. Ez.
Joxe: -Pelargon eta hoik hobiak zian.
-Bai. Preparatuguak.

26. Etxe zahar-zaharrean jaiotakoa

- **Erref**: USU-004/026
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:38:24. **Bukatu**: 00:40:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Nievesen jaiotetxea oso zaharra zen, zuloz betea. Itogin asko zeuzkan teilatuak eta hango ura biltzeko baldeak jartzen zituzten. Etxeko zenbait gelatako leihoek ez zeukaten kristalik.

27. Jaiotetxeko hotza eta koltxoiak

- **Erref**: USU-004/028
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:42:14. **Bukatu**: 00:44:31

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Jaiotetxean hotz handia pasatzen zuten. Orduko koltxoiak nolakoak ziren azaltzen du.

28. Etxeko martxa: lan-banaketa, alokairua eta Pepita astoa

- **Erref**: USU-004/030
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:45:08. **Bukatu**: 00:47:56

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Lan-banaketa denen artean egiten zuten. Pepita astoa zeukaten. Soroa tren-estazio inguruan zeukaten eta handik astoa bakar-bakarrik etortzen zen etxera. Maizter ziren etxean: alokairurako dirua ematen zuten eta borondate on gisa kapoiak ere bai; bueltan arropa zaharrak ematen zizkien nagusiak, markesak.

29. Gaztetako arropak

- **Erref**: USU-004/031
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:47:56. **Bukatu**: 00:50:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Markesak alokairuaren truke arropa zaharra ematen zien. Orduko gabardina bati buruz hitz egiten du. Izeba bat moja zuten, eta hark noizean behin ekartzen zizkien arropak. Gainerakoan, etxean josten zuten arropa. Orduko arropak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

30. Komunioko soinekoa

- **Erref**: USU-004/032
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:50:35. **Bukatu**: 00:53:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Komunio handia egin zuenean, Nievesen amandreak soinekoa egiteko tela oparitu zion. Komunioko soinekoak etxe batetik bestera uzten ziren, denek erosi behar ez izateko.

31. Zapatak baino hobea osasuna

- **Erref**: USU-004/035
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:55:26. **Bukatu**: 00:58:44

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Abarkarik ez du ezagutu Nievesek. Behin markesak moja-zapatak eman zizkion, baina Nievesi ez zitzaizkion gustatzen. Askotan zapata puskatuekin ibili behar izaten zuen, baina ez zen inoiz gaixotzen.

32. Emakumeen makillajea

- **Erref**: USU-004/037
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:59:03. **Bukatu**: 01:00:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Ezkondu zen egunean arreglatu zituen lehenengo aldiz bekainak. Ordura arte makillajea ez zen erabiltzen ia. Masaileetan hautsak eman gabe kolorea izateko modua bazuten.

Transkripzioa
-Orduan makillajia ta nola zan, noiz hasi ziñan?
-Makillajia?! Ezkondu nitzan egunian Joxeba Herreruanekuak, Martxiel, Martxieli in diyozue ba? Haren arreba zan oso jostun ona. Eta harek positako soiñekuakin ezkondu nintzan gaiñea. Ta ezkondu nintzan egunian aurren-aurrena betazalak arreglatu zixkian harek. Lehenengo aldiz!
-Zenbat urtekin ezkondu ziñen?
-Hogeita bikin.
-Ta lehenengo aldiya, e?
-Lehenengo aldiya. Makillajia ordun? Bueno...
-Begiyak pintatu edo?
-Ezpaiñak bai, baiño keba, ezta ezer'e.
-Zerrekin pintatzen zenituzten ezpaiñak?
-Ezpaiñak? Ba pintalabios.

-Eta nundik erosten zenuten hori?
-Drogeriya bazan hemen Usurbillen, bai.
-Eta ematen al zenuten hautsikan edo?
-Ezta ezer'e. Nik sekula ez det eman. Sekula ez det eman, ez det egiya esan. Gerora eman det.
Joxe: -Hautsak bazian, e.
-Baiña nik ez nin ibiltzen. Hola in, hola fuerte-fuerte ta kalea.
-Zer zan hori?
-Koloria pixkat ateatzeko. Hola toailla mutur batekin hola bero-bero in eta kalea.
-Hara!
-Honbre! Guk ez gendun erosteko're ezer'e e?

33. Hondartzan bainujantzia jartzeko lotsa

- **Erref**: USU-004/040
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 01:02:56. **Bukatu**: 01:04:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:
Hondartzara joan zen lehenengo aldian, Nievesi bainujantzia utzi egin zioten. Lotsa handia pasatzen zuen bainujantzia jartzeko. Bainujantziak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

34. Trena: bidaiatzeko eta posta jasotzeko

- **Erref**: USU-004/041
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 01:04:35. **Bukatu**: 01:06:11

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Orioko hondartzara joan zirenean, trenez bueltatu ziren Usurbila. Trena zenbatero izaten zen aipatzen du. Aita postaria zuten eta seme-alabek lagundu egiten zioten gutunak banatzen. Aitak lanbide ugari izan zituen.

35. Eskolara joateari etxean garrantzi handia eman

- **Erref**: USU-004/043
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 01:07:30. **Bukatu**: 01:11:31

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Nieves oso gustura joaten zen eskolara. Bi urte eta erdi zituela hasi zen eskolara joaten, amak garrantzi handia ematen baitzion hezkuntzari. Amak ez zuen izan eskolara joateko aukera handirik, nahiz eta berak joan nahi; 11 urterekin neskame etorri zen Usurbila. Nieves mojekin hasi zen ikasten. Orduko mojak aipatzen ditu.

36. Eskolan klase partikularrak hartzen ibilitakoa

- **Erref**: USU-004/046
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 01:12:44. **Bukatu**: 01:14:13

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Maistrak eskola partikularrak ematen zizkion Nievesi. Inguruko auzoetatik etortzen ziren umeak eskolan gelditzen ziren bazkaltzen, eta arratsaldeko klaseak hasi bitartean, maistrak aparteko klaseak ematen zizkien; Nieves haiekin batera sartu zuen. Klase haiek ordaindu egin behar izaten ziren; baina Nievesen etxean dirurik ez zegoenez, ez zioten kobratzen. Matematikak asko gustatu izan zaizkio Nievesi.

37. Eskolako gaiak eta metodologia

- **Erref**: USU-004/048
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 01:14:57. **Bukatu**: 01:16:09

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Matematikaz gain, geografia asko ikasten zuten, baina Nievesi ez zitzaion gustatzen. Eskolako metodologia nolakoa izaten zen aipatzen du.

38. Eskolako entziklopedia eta ikasgaiak

- **Erref**: USU-004/049
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 01:16:09. **Bukatu**: 01:17:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Historia sakratua, Espainiako historia, dotrina, geometria, matematika... ikasten zuten; hori dena entziklopedia batean azaltzen zen eta handik ikasten zuten. Marrazketa ikasten zuten eta herriko neska batzuk oso onak ziren. Laboreak egitea oso gustuko zuen Nievesek; ebaketa eta jantzigintza ikasi zuen gerora.

39. Gaztetan ikasitako laboreak

- **Erref**: USU-005/001
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Eskolan laboreak ikasten zituzten: puntua egiten, josten... Kalexarko mojek bordatzen erakutsi zioten. Nievesek josten zituen etxekoen arropak.

40. Jaioberriarentzako egindako jertsea

- **Erref**: USU-005/003
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:01:52. **Bukatu**: 00:03:09

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Nievesek egindako jertsea erakusten du. "Punto cebada" eta "punto bobo" erabilita egin zuen. Errematea kakorratzarekin (gantxiloarekin) egin zuen. Liburuetatik ere ikasi izan du puntua egiten.

41. Txoko Aldeko trenaren zuloak

- **Erref**: USU-005/008
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:06:27. **Bukatu**: 00:09:56

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Txoko Aldetik Santuenera joateko tunelak zuloak ditu barruan. 40 trenbide-trabes daude tunel barruan, eta haiek kontatuz gero, zuloak non dauden jakin daiteke. Antoniok eskapada egin zuen behin tunelean. Emakume bat trenak harrapatuta hil zen. Txoko Aldeko emakume helduak oso abilak ziren trenbideko errail gainean ibiltzen.

42. Ezkondu aurreko agurra

- **Erref**: USU-005/010
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:10:16. **Bukatu**: 00:13:02

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Ezkondu aurreko agur-hamaiketakoaren ostean, juxtu-juxtu pasa ziren tuneletik Antonio eta bere lagunak. Neskei ez zitzaien egiten agur-afaririk normalean; baina Nievesen ahizpak egin zuen eta egun hura nolakoa izan zen azaltzen du.

43. Erromeria urrutitik ikustearekin konformatu behar

- **Erref**: USU-005/012
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:13:45. **Bukatu**: 00:14:50

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Neskak erromeriara arratsaldez bakarrik joaten zen. Irubidera ezin izaten zuten joan, eta urrutitik begiratzearekin konformatzen ziren.

44. "Anarkista!"

- **Erref**: USU-005/015
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:20:16. **Bukatu**: 00:21:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Bittor medikua tabernara joan, eta tragoa osten zioten Antoniok eta bere lagunek; "Anarkista!" deitzen zien haserre batean. Antonioren kuadrilla oso juergazalea izan da.

45. Mutilak ilunabarrean hasi dantzan

- **Erref**: USU-005/017
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:22:34. **Bukatu**: 00:25:18

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Erromerietan, mutilek ez zuten dantzatzen ilunabarrera arte; izan ere, orduan gutxi falta izaten zen etxera joateko, eta neska-laguntzea izaten zen. Usurbilek ez du izan giro handia erromerietan; giro ona Irubiden edo herriko jaietan izaten zen.

46. Mutilek neskei dantza eskatzeko adorea

- **Erref**: USU-005/019
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:27:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Dantza egiteko eskatzeko, adorea izan behar zuten mutilek. Neskek ez zuten arazorik izaten ezetz esateko; neskek ez zuten, ordea, inoiz eskatzen dantzarik.

47. Konfesioari buruzko txistea

- **Erref**: USU-005/020
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:27:10. **Bukatu**: 00:27:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Konfesioari buruzko txistea.

48. Lehen emakumeek fama txarra edozer gauzagatik

- **Erref**: USU-005/023
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:31:10. **Bukatu**: 00:32:39

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakumeei fama txarra edozer gauzagatik jartzen zitzaien lehen: zigarroa erretzeagatik, tabernara joateagatik, mutilekin dantzatzeagatik... Elizak herrian agindu nahi zuen lehen.

49. Bizitzari eta bikoteen elkarbizitzari buruzko iritziak

- **Erref**: USU-005/025
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:34:16. **Bukatu**: 00:37:12

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Lehen neskek mutil-lagun bakarra edukitzen zuten. Ez zen suerte kontua bakarrik, elkarbizitzan errespetua izatea ere, baizik. Gaur egun jendea errazegi banantzen dela uste dute; baina lehen gehiegi ere aguantatzen zen. Badira gauza batzuk behin ere egin ezin direnak.

50. Ibaia zikindu zenekoa

- **Erref**: USU-005/027
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:37:34. **Bukatu**: 00:39:34

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Arrain batzuk ez zituzten jaten lehen, ez baitzekiten ondo nola prestatu. Lehen ez zen oliorik; haren ordez, seboa erabiltzen zuten. Gerora, ibaia zikindu egin zen eta galdu egin ziren bertako arrainak. Gaur egun, oraindik ez da behar bezala garbitu ibaia.

51. Lehen jaten zituzten arrain klaseak

- **Erref**: USU-005/029
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:40:22. **Bukatu**: 00:44:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Lehen ibaiko amuarraina eta angula jaten zuten asko; baita antxoa, sardina, akula, txitxarroa, bisigua eta berdela ere. Lehen bakailaoa pobreen janaria zen merkeena zelako. Arrain mota gehiago jaten zuten eta aipatu egiten dituzte. Arrain haiek nola prestatzen zituzten azaltzen dute. Gizon bati "Akula" deitzen zioten, mutur luzea zeukalako.

52. Haurdunaldia disimulatzeko ohitura

- **Erref**: USU-005/032
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:50:28. **Bukatu**: 00:51:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Haurdun zegoela, Nievesek berak egindako soinekoak eramaten zituen; nolakoak ziren azaltzen du. Lehen haurdunaldia tapatu egiten zen.

53. Umeak Paristik zetozela

- **Erref**: USU-005/034
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:52:16. **Bukatu**: 00:53:06

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Umeak txikitan Paristik zetozela esaten zieten. Umeen jaiotza ez zen otorduan hitz egiteko moduko gauza.

54. Ume-hizkera gustatu ez

- **Erref**: USU-005/040
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:59:24. **Bukatu**: 01:00:48

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Ume-hizkera ez zaio inoiz gustatu izan Nievesi. Gauzei bere izenez deitzen erakutsi izan die bere umeei.

55. Hortzak erortzean sutara

- **Erref**: USU-005/042
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 01:01:08. **Bukatu**: 01:02:03

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Hortzak erortzen zitzaizkienean, sutara botatzen zituzten, "to zaharra ta ekar zak berriya" esanez. Umetan ez zuten hortzak garbitzeko ohiturarik. Nieves lanean hasi zenean joan zen dentistarengana lehenengo aldiz.

56. Elizakoak ematerakoan izandako anekdotak

- **Erref**: USU-005/045
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 01:04:55. **Bukatu**: 01:06:22

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Elizakoak ematera joan zen behin apaiza, eta orduko anekdotak kontatzen dituzte.

57. Eguraldia asmatzeko bideak

- **Erref**: USU-005/048
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 01:09:36. **Bukatu**: 01:12:48

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Nievesen lehengusua artzaina zen Urbian. Behin hari bisitan joan ziren, eta hurrengo eguneko eguraldia bete-betean asmatu zuen. Ekaitza zetorrenean, ardiak bildu egiten ziren. Enarei ere begiratzen zitzaien eguraldia asmatzeko. Sorbeltzari buruz hitz egiten dute.

58. Beldurra sartzeko ipuinak

- **Erref**: USU-005/050
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 01:14:11. **Bukatu**: 01:15:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Beldurra sartzeko ipuinak zeuden lehen. Mateo Txisturen istorioa kontatzen dute.

59. Mateo Txistu eta Anbotoko Mari

- **Erref**: USU-005/052
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 01:15:59. **Bukatu**: 01:17:48

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Mateo Txisturen istorioa kontatzen dute. Anbotoko Mariren mitoa kontatzen dute.

60. Txiste batzuk

- **Erref**: USU-005/054
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 01:18:03. **Bukatu**: 01:19:04

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Nievesek txiste bat kontatzen du. Joxek txiste haren jarraipena kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-01

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com